

Lekuko aldaketa Ttakun KEko lehendakaritzan

Mari Karmen Ormazabalek hartu dio erreleboa Tomas Arrizabalagari; Ttakunek 28 urte beteko ditu larunbatean / 8-9

Mozioz mozio aritu dira eztabaidan ordezkari politikoak, azaroko ohiko plenoan / 2

PSE-EE izan da alderdi bozkatuena herrian, hauteskunde orokorretan / 3

Beste bi hilabetez atzeratu dute Ibon Fernandez Iradiren kasuaren ebazpena / 5

Gorka Gil eta Maite Salazar izan dira herritar azkarrenak Behobia-Donostian / 10



Motxila, bizipenez beteta

Donejakue bidea egin du Yon Pavon herritarrak, Erromatik Santiagora / 6-7

YON PAVON



Zozketa!

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Bazkideen artean! @TtakunKE  

Pirritx, Porrotx eta Marimotots-en BIZI DANTZA disko berria zozketatuko dugu.

Eman izena azaroaren 25a baino lehen harpidetza@ttakun.eus helbidean, bulegoan, 943371448 zenbakira deituta edo 646824466 Whatsapp-ean.



Katxiporreta

URTINEA 

Urdaiaga auzoa, 11 · USURBIL
943 917 562

LORADENDA · EZKONTZA ETA EKITALDIAK · DEKORAZIOA





Gutxitan ikus daiteke azaroko ohiko udalbatzarren bezain beste jende plenoan. TXINTXARRI

Herritarren eskaera bat baino gehiago, plenoan

Gai zerrendan zehaztutako puntuak landu ostean, Landaberri Ikastetxeko ordezkariak hartu dute hitza; ikastetxean dituzten arazoari errotik eusteko eskaera egitearekin batera, irtenbideak behar dituztela azpimarratu dute, beste behin

Maddi Zaldua

Astelen arratsaldean bildu dira, udalbatzarrean, udal gorberrua osatzen duten alderdi guztiak, eta normalean baino beteago aurkitu dute udalbatzar aretoa. Betiko aurpegi ezagunak ez dute hutsik egin, baino ezohikoak diren herritar ugari bildu dira udaletxeko hitzorduan. Kamiseta moreekin jantzitako emakume talde batek deitu du arreta berezia; Atsokabar zahar egoitzako langileak dira. 118 greba egun baino gehiago egin dituzte dagoeneko, eta ELA sindikatuekin batera aurkeztutako mozio batean, bizitzaren ari diren egoeraren berri ematearekin batera, hainbat eskari egin dizkiote udalbatzari. Langileekiko elkartasuna eskatu dute lehenik. Horrekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiari, ahalik eta denbora laburrean, arazoari heldu diezaion eskatu diezaioa udalbatzarrak, eta, azkenik, Gipuzkoako farmazeutiko banatzaileek zahar egoitzako egoiliarrek jaso ez duten zerbitzuaren zatia bueltatzeko eskaera egitea. EH Bildu eta Elkarrekin Lasarte-Oria Puede alderdiaren babesarekin eta PSOE-EEren eta EAJren abstentzioarekin aurrera egin du.

Horrekin batera, bestelako bost gai ere eztabaidatu dituzte. Bi proposamen aho batez onartu dituzte: Basaundi Bailarako bizitegi eraikinak birgaitzeko jabeen erkidegoei banakako ebaluazio araubidean diru laguntzak emateko oinarri espezifikoak onartu dituzte, eta baita Kultura eta Hezkuntza batzordearen ohiko bilerak aldatzea ere. Hemendik aurrera hilabeteko lehen asteartetan izango dira, 09:30ean.

Horren ostean, Elkarrekin Lasarte-Oria Puerderen mozioak hartu du lekua, eta nahiko nahasmen sortu du gainera. Joko eta apustu etxeen hedapenari mugak jartzeko mozio bat ekarri du mahai gainera David Aresen alderdiak, baina plenoa hasteko minutu gutxi falta zirenean, adostasun batera iritsi dira EAJrekin –eta hasiera batean baita PSOE-EErekin ere, baina udalbatzarrean akordiotik kanpo geratu da–, eta elkarrekin mozio transakzional bat aurkeztea erabaki dute. Horren bitartez, Lasarte-Oria joko eta apustuen ikus-entzunezko publikitatearen hedapena eta apustu kuota mugatzea; ludopatiaren aurkako sensibilizazio kanpainak martxan

jartzea; herriko joko eta kirol apustuen egoera zein den jakiteko azterketa bat egitea; eta ludopatiaren prebentzioaren errehabilitazio zentroek egiten dituzten programak aurrekontuen bidez babesteko eskaera egin diote Lasarte-Oria Udalarari. EH Bildu alderdiak bozkekin babestu du mozioa, eta bederatzi botorekin onartua geratu da.

Horrez gain, atzeritarrei auzotartasun dokumentua ezartzeko eskaera egiteko bigarren mozio bat ere aurkeztu dute. EH Bildu eta EAJ alderdiak abstentitu egin dira, eta horien bozkekin lortu dute aurrera ateratzea.

Amaitzeko, EAJk ere eskaera bat egin dio PSE-EEri mozio baten bitartez; legealdi plan bat eskatu dio. Horrela, lau hilabeteko epean, zirriborroa aurkezteko eskatzearekin batera, horretan oposizioari parte hartzeko aukera emateko eskaera ere luzatu dute, eta zirriborroko eta horko ekarpenak negoziatu ondoren, osoko bilkurara eramatea, eztabaidatzea eta bozkatu ahal izatea galdegin du EAJk. Horren alde egin dute EH Bildu –hainbat kezka tarteko– eta EAJk, eta aldeko bederatzi bozkekin babestuta geratu da.

Pentsio publiko duinen aldeko mobilizazio berria, larunbatean

Donostiako Alderdi Ederreko lorategietatik abiatuko da manifestazioa, eta deialdiarekin bat egiteko eskatu dute

Txintxarri

Lasarte-Oria pentsionistak ez dira nekatuko. Espainiako gainerako pentsionisten borrokarekin batera, bi urte igaro dira mobilizazioak hasi zituztenetik, baina egoerak hobetu bitartean, ez dute borrokarekin amaituko.

Horrela, larunbatean, Donostian eta Eibarren deituta dauden mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatu diete herritarrei. Ez, ordea, pentsionistei bakarrik. Adin guztietako herritarrek biltzea nahi dute: "Gizarte osoari dagokion auzi bat da, bereziki emakumei eragiten diena".

Gai berari salaketa asko

Espainiako Gobernuak neurriak hartzen ez dituen bitartean, orain arteko salaketekin jarraituko

dute. "Haserre" daude egoera sortzen ari den ezinegonarekin, eta argi azaldu dute ez dutela onartuko %0,25eko errebalorizazio legea, ezta %0,90ko igoera ere. Azaldu dute, haserre eragiten diela Espainiako Gobernuak pentsio publiko duinen lege proposamenik mahai gainean jarri ez izanak: "Arduragabekeriak jokatzen ari dira, Gizarte Segurantzaren defizitari aurre hartzeko jarreran".

Horrela, Diputatuen Kongresuak onartutako pentsio publikoen lege bat exijituko diote Espainiako Gobernuari; horren bitartez, pentsioak, gutxienez, KPIaren arabera eguneratuak izan daitezela bermatu nahi dute.

Guzti horrekin batera, gutxiengo pentsioa 1.080 eurokoa izatea ere galdegin dute.



Alderdi guztietako ordezkariak bildu dira ostegun eguerdiko ekitaldian. TXINTXARRI

Azaroaren 10eko Memoriaren Egunean bildu dira alderdiak

Alderdi politiko guztietako ordezkariak parte hartu dute biktimak oroitzeko egindako ekitaldian, ostegunean

Txintxarri

Arrosa zuri bana eskuetan hartuta, Askatasunaren parkean bildu dira udaleko ordezkari politikoak, ostegun eguerdian. Memoriaren Eguna da azaroaren 10a, izan ere, egun hori baita terrorismoak eragindako biktimarik gabeko egun bakarra. "Biktima guztiak, salbuespenik gabe" izan dituzte gogoan

ekitaldian. Horrela, testu bat irakurri dute, nahiz eta ez den adierazpen instituzional bateratu bat izan. Inaki Mujika PSE-EEren idazkariak azaldukoaren arabera, EH Bildu ez du testua babestu.

Irakurketaren ostean, isilunea egin dute, eta arrosen eskaintza egin dute, loreontzian. EH Bildu, hiru hilarri-totemetako batean jarri ditu loreak.

Apirilean baino herritar gutxiagok bozkatu dute

PSE-EE izan da alderdi bozkatuena, 2.985 bozkarekin, apirilean bezala. Bigarren postuan etorri da aldaketa: EAJk hartu du Elkarrekin Podemosen lekua. EH Bildu hirugarren indarra izan da. 14.282 herritarretik 9.670 joan dira hautetsontzietara; boto-emalleen %67,71

Txintxarri

Normaltasunez eta gehiegi itxaron beharrik gabe bozkatu zuten lasarteoriatarak joan den igandeko hauteskunde orokorretan. 14.282 herritar deituta zeuden boza ematera, Barne Ministerioaren datuen arabera. 9.670 lagunek egin zuten hauteslekuetara bidea, hau da, %67,71k, apirilean baino ia zazpi puntu gutxiago. Orduan, %74,26k utzi zuten boza hautetsontzietan. Egia da galdeketa hartan nabarmen igo zela parte hartzea, eta errepikapenak eragindako nekeak edota haserreak eta eguraldi txarrak zeresanik izan dezakeela askok etxean gelditzea erabaki izanarekin.

Parte hartzeaz gain, emaitzetan ere bada aldea. Ez alderdi bozkatuenean, PSE-EE izan baita beste behin boza gehien jaso dituen: 2.985. Ehuneko gora egin du, %31,04, ez ordea, paper kopuruan. Apirilean, 3.215 lortu zituen, %30,63. Bigarren postuan etorri da aldaketa. Aurrekoan Podemos, EB eta Equo Berdeak alderdien koalizioak lortu zuten (2.048); gaur, berriz, Elkarrekin Podemos laugarren indarra izan da 1.642 paperekin. EAJk hartu du sozialisten ondorengo toki, 1.920 botorekin (-52), eta



Bozka ematera deituta zeudenen %67,71k parte hartu du hauteskundeetan. TXINTXARRI

hirugarrena, EH Bildurentzat izan da, 1.754rekin (+57). PPK 742 jaso ditu (+88), Vox ultraeskuindarrak 244 (+31) eta Ciudadanosek 175 (-287).

Illarak bozak hartzeko

Goizeko bederatzieta ireki zituzten hauteskunde mahaiak eta, ohi bezala, eguerdi partean bertaratu ziren gehien bat zegokien mahaira. Udalbatza aretoan zeuden bi mahaietan illarak osatu ziren, nagusiki, bozak eskuratzeko kabinen gortina atzean sartzeko. Eskailera gunean

zain gelditu zirenak ikusita, emakume batek galdetu die: "Zer etorri gara puntako orduan ala?", eta "denek ideia bera izan dugu" erantzun zioten, boza prest bazuen aurrera egin zezakeela azaldu aurretik.

Mahaian izenak irakurtzen eta idazten ibili zirenen arabera, goiza lasai joan zen, ohiko erritmoan. %16 inguruan kokatu zuten parte hartzea bertan, eta Sasoetan, %22koa zela. 14:00etan herriko parte hartzea %38,87koa zen, eta 18:00etan, %53, 8koa. Azken kopurua, %67,71.

Idoia Garzes idazleak Augustin Zubikarai saria irabazi du

'Mendiko gaitza' nobela proiektua aurkeztu du herritarrek sari horretara; 24 lanen artean aukeratu du epaimahaiak

Txintxarri

Augustin Zubikarai saria irabazi du Idoia Garzes idazleak, *Mendiko gaitza* nobela proiektuarekin. 24 lanen artean aukeratu du epaimahaiak herritarrena, "nobela beltz atipiko bat" dela adierazita. Leire Bilbao, Xabier Mendiguren eta Ana Urkizak deliberatu dute sari hori merezi duen egitasmoari buruz.

Aspergerren sindromea daukan emakume gazte batean oinarritzen da istorioa; Arlet Anaut du izena. Mendingian barrena dabilela, kasualitatez, argitara aterako du desagertze baten arrastoa, eta, ondorioz, heriotza baten susmagarri bihurtu nahiko dute. Anautek ez du erraz konektatzen jendearekin, eta besteentzat bitxiak diren pentsamenduak eduki ohi ditu. Bera da *Mendiko*



Idoia Garzes idazlea. TXINTXARRI

gaitza eleberraren protagonista nagusia eta narratzailea.

Berriki argitaratu du Garzesek *Hari single bat* ipuin luzea. 37. Lizardi Saria irabazi du lan horrek aurten.

Mundu osoko zaporeak

Bazkari multikulturala antolatu du Burunzpe guraso elkarteak igande honetan, Sasoeta ikastetxeko gimnasioan. Egitaraua: 13:00ean, plater dastaketa; 15:30ean, jokoak; eta, 16:30ean, karaokea.

Guraso elkarteko kideek adierazi dute laguntza beharko dutela aulkiak eta mahaiak jarri eta kentzeko. Parte hartu nahi dutenek multikulturala@burunzpe.net helbidera idatzi behar dute, igandea baino lehen.



lazko bazkari multikulturala. TXINTXARRI

2020 GIDA KOMERTZIALA txintxarri

www.txintxarri.eus/gida

Denda, taberna, jatetxe edo enpresa bat duzu?

- Gida osatua, eguneratua eta erabilgarriena.
- Lasarte-Oriako denda eta enpresen telefono gida.
- Sarean, mugikorretan, tabletan...



GIDAN PARTE HARTZEKO: publizitatea@ttakun.eus | 943 37 14 48 (106) | 646 82 44 66 | Geltoki kalea, 4 LASARTE-ORIA

Aterpea ez dago ados 2020ko ordenantzekin

Merkatari eta ostalarien herriko elkarteak ez dator bat zaborraren eta ura eta estolderiaren tasen %5eko igoerarekin. Uste du "desberdintasun handiegia" dagoela etxebizitzek eta komertzioek ordaintzen dutenaren artean. "Bikoitza baino gehiago pagatzen dugu"

Txintxarri

Aterpea Merkatarri eta Ostalarien elkarteko kideek uste dute "ikerketari serio bat" egin beharko lukeela Lasarte-Oriako Udalak, 2020. urterako onartu berri dituen ordenantza fiskalen inguruan. Arduratuta daude dendari eta ostalariak, ordenantza horietan jasotzen diren zenbait tasaren igoerarekin. Zaborrenarenean eta ura eta estolderiarenean jarri dute arreta: %5 igoko dira horiek datorren urtean. Erabaki horrek areagotu egiten ditu desberdintasunak etxebizitza partikularrek eta komertzioek ordaindu beharreko kantitateen artean. "Bikoitza baino gehiago" pagatzen dutela argudiatuta,



Aterpeko kideek Hipodromo Etorbidean egin dute agerraldia. TXINTXARRI

udalari galdegin diote mahai politiko bat eratzea, eta "sakonki" aztertzea gai hori, tasak egokitzeke: "Bakoitzak sortzen duen zaborraren arabera izan beharko luke tasak; denda askok etxebizitzek baino hondakin gutxiago sortzen dituzte urtean zehar".

Prentsaurrekoa egin du Aterpeak, egoera hori salatzeke. Adibideak jarri ditu elkarteko lehendakari Ramon Ormazabalek. Etxebizitza partikularrek 101,65 euroko zabor-tasa ordaindu beharko dute 2020an. Komertzioek, berriz, "bikoitza baino gehiago". Bost langile baino gutxiago dauzkatenek, 253,80 euro; bostik gorakoek, berriz, 275,75 euro. Ostalariak are gehiago pagatu beharko dute datorren urtean. Bost langile baino gutxiago dauzkatenek, 361,65 euro; bost eta hamar artekoek, 662,95 euro; eta, hamarretik gorakoek, 1.486,10 euro. "Etxebizitza partikularrekin ez du sailkapenik egiten udalak; berdina da zenbat pertsona bizi diren bakoitzean".

Adierazpen labur bat irakurri du Ormazabalek segidan. Jakinarazi du urriaren 21ean

zuzenketa bat bidali zuela Aterpeak, ordenantza fiskalei buruzkoa. Dokumentu horretan adierazi zuten "gehiegizkoak" direla diferentziak.

Tasen arteko aldeak

Zaborraren tasan dauden "desberdintasunak" jarri ditu mahai gainean Aterpea elkarteak:

Etxebizitza partikularrak

- 2020an: 101,65 euro

Komertzioak

- 2020an: 253,80 euro (<bost langile)
- 2020an: 275,75 euro (>bost langile)

Ostalariak

- 2020an: 361,65 euro (<bost langile)
- 2020an: 662,95 euro (bost-hamar langile)
- 2020an: 1.486,10 euro (>hamar langile)

'0km' eta inguruko produktuak, azokara

Baserriko produktuen VII. azoka izango da larunbatean Okendo plazan. Postuetan udazkeneko produktu aukera zabala aurkituko dute herritarrek. Lasarte-Oriako Telleria baserriko produktuak eta hazi ekologikoen postua ere egongo dira

Txintxarri

Azaroak 11, San Martin eguna, igaro da eta txerrikiak udazkeneko baratzekeko produktu, fruitu eta esnekiekin batera saltzen hasten dira azoketan. Lasarte-Oriako Udalak larunbatean produktu horiek guztiak dastatu eta erosteko aukera izango dute, VII. Baratzekeko Produktuen Azokari esker.

Aukera zabala izango dute herritarrek Okendo plazan izango diren hamaika postuetan. Barazkiak, frutak, jatorrizko izendapeneko Idiazabal gazta, behi esnekiak, ahuntz gazta, ahate haragia, pateak, Tolosako babarrunak, pastak edo ogia

salduko dituzte. Eta garaia kontuan izanik, txerriek ere izango dute bere presentzia.

"San Martin inguruan egin ohi dugu azoka hau, eta, horregatik, udazkeneko produktuak eta lehen txerrikiak eskuratzeko aukera da", azpimarratu du Ainhoa Amundarain Behemendiko ordezkariek. Aurten eskaintza zabalduko da eta udazkeneko landare eta loreek ere tartetxo bat izango dute.

Getaria, Oiartzun edo Mallabiako ekoizleak izango dira Lasarte-Oriako, baina 0 km-ko produktuak ere. Lasarte-

Oriako Telleria baserriko lagunek euren barazki eta intxaurrak eramango dituzte plazara. Hazi ekologikoak saltzen dituen herritarren postu bat ere izango da Okendon.

Hernaniko Jauregi baserriko sagarrak ere izango dira salgai. "Sagar garaia amaitzen ari da eta azken aleak ekarriko ditu Iradik. Hainbat azoketan ibiltzen dira eta sagarrek sari ugari lortu dituzte", azaldu du Amundarainek.

Larunbatean goizeko 10:00etatik 14:00etara izango da azoka Okendo plazan. Gurasoek erosketak egiten dituzten bitartean, haurrek egurrezko



Baserriko produktuen edizio berria aurkeztu dute Behemendi elkarteak eta udalak. TXINTXARRI

jokoetan jolastu ahalko dute. Eta musika ere izango da, giro hotza epeltzeko.

Zazpigarren edizioa

Baserriko produktuen azoka erroto da eta zazpigarren edizioa du aurtengoa. Lasarte-Oriako Udarak harrera paregabea egin diote ekimenari eta produktuak ederki saltzen dituzte ekoizleek. Horregatik, baserritarrek "pozik"

daudela jakitera eman du Behemendiko ordezkariek.

Ekimen horrek produktuen zuzeneko salerosketa sustatzen duela azpimarratu du sozio-ekonomia arloko buru Nuria Fernandezek. Horrez gain, eskerrak eman dizkio Behemendiri azoka antolatzeagatik, eta herritarrek gonbidatu ditu azokara hurbiltzera, eguraldiak laguntzen ez badu ere.

Behin betiko erabakia, bi hilabete barru

Frantziako Zigor Aplikazioen Auzitegiko epaileak Ibon Fernandez Iradiren zigorra etetearen alde egin du, baina helegitea jarri du Fiskaltzak. Parisko Dei Auzitegiak emango du behin betiko epaia, bi hilabete barru. Mobilizazioak iragarri ditu herriko Sarek datorren asterako

Txintxarri

Beste bi hilabete inguruz atzeratuko da Ibon Fernandez Iradi preso herritarrari buruzko auzia. Zigorak Ezartzeko Frantziako Auzitegiko epaileak asteon egin du zigorra etetearen alde, baina helegitea jarri du Fiskaltzak, erabaki horren berri izan eta segituan. Parisko Dei Auzitegiarena izango da azken hitza. 2013an diagnostikatu zioten esklerosi anizkoitza Fernandez Iradiri; orduan hasi zuen bidea epaitegietan, oraindik amaitu ez dena. Bera eta beste hoge euskal presok dauzkate eritasun larriak –zerrenda horretan zeuden beste hiru berriki zendu dira, kartzelatik irten eta hilabete gutxira: Jose Angel Ochoa de Eribe, Oier Gomez eta Juan Mari Maizkurrena–.

Herriko Sarek elkarretaratzea egin zuen astearte arratsaldean, erabakiaren berri izan zuen egunean. Dozenaka pertsona gerturatu ziren Elizatze plazara, herrikidearen egoeraren azken ordukoak entzutera.

Datorren asteko ekintzak

Fernandez Iradik espetxean segitzea "bidegabekeria" dela salatzeaz gainera, Sareko kideek iragarri zuten mobilizazioak egingo dituztela datorren astean.



Datorren asterako mobilizazioak iragarri dituzte eskualdeko Sareko kideek. TXINTXARRI

Prensaurrekoa egin zuten bezperan, astelehenez, eskualdeko ordezkariekin batera, ekitaldi horiek iragartzeko.

Lasarte-Oriako Sarek solasaldia antolatu du azaroaren 19an, astearte, arratsaldeko zazpitan, kultur etxeko hitzaldi aretoan. Sareko bozeramaile Joseba Azkarraga eta 30 urte baino gehiagoz kartzelan egondako preso ohi Jose Ramon Lopez de Abetxuko gonbidatu dituzte. Hiru egun beranduago, ostiralez, manifestaziora deitu dute. 19:00etan abiatuko dira, Okendo

plazatik. *Larriki dauden preso gaixoak etxera!* leloa daraman anbulantzia izango dute bidelagun. Hernanin izango da hurrengo egunean, azaroak 23, larunbata. Plaza berrian elkartuko dira, 13:00ean, eta herritik buelta bat emango gero, Bego Arrondo eta Julio Bakedano ordezkariak iragarri zuten. Azkenik, igandean, Usurbilen izango da anbulantzia. 13:00etan jarri dute hitzordua, Mikel Laboa plazan. Joselu Zabalak eta Aitor Landaluze dira herri horretako Sareko kideetako bi.

Erraustegiaren eragina ikertuko dute; 26.384 euro bildu dituzte

Errausketaren Aurkako Mugimendua: "Egitasmoa diruz laguntzeko finkatutako kopuruak gainditu ditugu"

Txintxarri

Martxan jarriko dute erraustegiaren isurkinen eragina neurtzeko ikerketa, Zubieta Lantzen elkarteak irail hasieran iragarritakoa. EAM Errausketaren Aurkako Mugimenduak jakinarazi du 26.384 euro –azaroaren 9ko datuak dira, mugimendu horren azken batzarrekoak– jaso dituztela, *crowdfunding*-aren eta beste mota batzuetako ekarpenen bidez. "Aurrez finkatutako kopuruak gainditu ditugu". Gogoratu dute igo egin direla kostu totalak, ToxicoWatch fundaziokoek iradoki zutelako interesgarria litzatekeela erraustegiaren inguruko emakumeen bularreko esnea ere aztertzea. Lasarte-Oria, Usurbil eta Andoaingo 39 amek parte hartu dute.

Zero puntua markatzen ari dira ikerlariak orain, erraustegia martxan jarri aurreko datuak



Ikerlari bat, laginak hartzen. TXINTXARRI

biltzen, noizbait piztuko balute datu batzuk eta besteak alderatzeko. "Etorrizuneko kontrolena izango da informazio baliotsuena".

Bestalde, EAMko hainbat kidek erraustegia ez pizteko eskatu zuten asteazkenean. Gipuzkoako Foru Aldundiak informazioa ezkutatzeko duela ere salatzen zuten.

Egurraren artisauek

Urtean zehar egindako lanekin erakusketa prestatu du Zurmailu elkarteak: 22 pertsonak egindako 80 bat lan jarri dituzte ikusgai Antonio Mercero aretoan.

Igande honetara arte egongo da zabalik erakusketa, hilak 17. Hau da ordutegia: astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara; larunbat eta igandean, 12:00etatik 14:00etara.



TXINTXARRI

Ipuin kontaketa berezia...
Asmakizunak, abestiak eta poesiak ... ipuinak lantzeko!
HH3-HH4koentzat
Azaroak 19, 17:45ean
Anbulatorio gaineko 2. solairuan.
Izena emateko:
Ttakuneko bulegoan,
aisia@ttakun.eus
whatsapp: 695785392

Ttakun Kultur Elkartea
@TtakunKE

Lehiaketa martxan!
ESLOGAN BILA GABILTZA!
Bidali: abenduaren 1a baino lehen

Ttakun Kultur Elkartea
"....."
Bidali eslogana:
harpidetza@ttakun.eus

SARIA: Santo Tomas ferian gastatzeko 2 bono

Bidea amaitu den leku berean hasi da bizitza

YON PAVON ERROMATIK SANTIAGO DE COMPOSTELARA EGIN DU DONEJAKUE BIDEA Abuztuaren 26an hasi zuen erromesaldia, eta azaroaren 11n iritsi da Santiago de Compostelara. 82 egun, 3.170 kilometro eta hiru zapatila pare behar izan ditu

Maddi Zaldúa

Duela hamasei urte, ez zekien Yon Pavonek (Lasarte-Oria, 1983) Erromatik Santiago de Compostelara oinez joateko biderik bazenik. Orduan egin zuen lehen aldiz Donejakue Bidea, Orreagatik abiatuta, eta Lizarran, Erromatik zetorren erromes batekin egin zuen topo. Haren esperientziaren berri jaso, eta aurten animatu da abentura bizitzera. Abuztuaren 26an abiatu zen Erromatik, eta astelehen honetan iritsi da Galiziako hiriburura. Erlijiotik harago, esperientzia pertsonal bat bizitzera abiatu zen.

Aitari eman zion, lehenengoz, asmoaren berri. Hark, ia hiru hilabetez etxetik kanpo ibiltzeko aukerarik ote zuen galdetuta, Pavonek baiezkua erantzun zion eta lehen unetik babestu zuen semea. Ingurukoek ere animatu egin zuten senide eta laguna, baina aurkako iritziren bat edo beste ere entzun behar izan zuela baieztatu du. "Tabernan, asmo txarrik gabe, apustu asko egin dituzte bezeroek, eta gehienak ez zuten Santiagora iritsiko nintzenaren aldeko apusturik egin". Pavonek, ordea, argi izan du helburua beti: "Hasi eta bukatu egin behar nuen bidea, Santiagora iritsi behar nuen".

Horrela, indarrak batu, oinetako egokiak jantzi, motxila

bizkarreratu, eta Santanderreko aireportutik Erromarako hegazkina hartuta hasi zuen abentura. Batikanoan egin zuen lehen geldialdia; erromesaldirako ezinbesteko kredentzialak jaso, eta Santiago de Compostelara abiatu zen. Orain, 82 egun eta gero, eta 3.170km. ibili ostean, bete du ametsa.

Egunerorako errutina bat zehaztu, eta, Italiatik abiatuta, kostako bideari jarraitu dio, hasieran, lasarteoriatarak. Horrela, -beste zenbait herri eta hiri igaro eta gero-, Italia iparraldean dagoen Genova hiritik pasa, Monakora iritsi, eta, bertatik, Frantziako hegoekialdera joan da. Hori atzean utzi ostean, Nizatik pasa eta Tolosako (Frantzia) bidearekin bat eginez, Arlesera iritsi da. "Bide horrek, pirinioen bitartez, Oloron Saint Marirekin bat egiten du, eta hortik, Donibane Garazira iritsi naiz".

Uda bete-betean hasi zuen Pavonek Donejakue Bidea, baina azken hilabeteetan, batez ere, neguko eguraldiari egin behar izan dio aurre. Horrela, eguraldiaren arabera antolatu ditu eguneroko etapak. Uda sasoiaren, goizeko 05:30ak aldera hasten zuen bidea, eguzkiaren ordu gogorrenak ekiditeko, eta neguan, aldiz, goizeko 07:00ak eta 08:00ak bitarte hasi du

eguneroko ibilaldia: "Udako tenperatura altuak elizetako freskotasunarekin arindu ditut, eta, neguko denboraleak tokatu direnean, berriz, tabernetan babestu naiz".

Momentu zailak

Gogotsu aritu da, baina espero baino esperientzia "gogorragoa" izan da, batez ere, Frantzian bizitakoa. "Ez nekien Frantzian Donejakue Bidea behar bezala markatu gabe zegoenik, eta estualdi une asko bizitzea egokitu zait".

Frantsesek ere ez diote egoera samurtzen gehiegi lagundu, eta zenbait momentutan, larri egin dio aurre bideari: "Frantziako bidean igarotako herrixkak hain ziren txikiak, non, ez zegoen dendarik, ez lotarako lekurik ezta dirua ateratzeko banketxerik ere. Egun batean atun lata batekin eta litro bat urekin egin behar izan nituen 42 kilometro".

Momentu zail horietan, indar guztiak galtzeko zorian egon zen

USTE BAINO MOMENTU ZAILAGOEI AURRE EGIN BEHAR IZAN DIE PAVONEK, FRANTZIAKO ZENBAIT ETAPATAN



Azaroaren 11n iritsi da Yon Pavon Santiago de Compostelara. Erroman hasi du bidea: 82

Pavon: "Dena bertan behera utzi, eta etxera bueltatzeko ideia buruan bueltaka izan nuen". Aurrera jarraitzeko indarrak, ordea, ez zitzaizkion guztiz agortu, eta laguntza eskatzea erabaki zuen. Horretarako, momentuko herriko elizako atea jo, eta bertako apaizari eman zion bere egoeraren berri. Elizgizonak harrera egin ostean, eta atzerriko hizkuntzekin elkar ulertzeko zailtasunak gaindituta, elizaren etxe bateko logelan ostatu hartu zuen.

Momentu zail horietan, familiaren eta lagunaren indarra ere "ezinbestekoa" izan dela nabarmendu du: "Asko eskertu

du gertukoek babesa, lasarteoriatarak ere animo asko bidali dizkirate sare sozialen bidez, asko eskertzen diet".

Zorionez, ordea, ez ditu Frantziako bezalako muturreko egoera gehiegi bizi behar izan. Azaldu du, Lasarte-Oriatik atera zen unean oso argi zuela bidean aritu bitartean, ez ziola inori ezer -dirua, jatekoa, e.a.- eskatuko, eta momentu oso zailtan ezinezkoa izan bazaio ere, ahalik eta zuhurren saiatu da ahalegin horretan.

Erljio kutsurik ez dio eman bere bideari, baina unean uneko lekuek eskainitakoaren arabera, elizak, eta santutegiren bat edo



Italian, Viterboko probintziako Acquapendente herritik igaro zen uneko argazki bat. YON PAVON



Egunero, batz bestea, 40 kilometroko ibilaldiak egin ditu Yon Pavonek. YON PAVON



Bidean jateko ogitartekoa. YON PAVON

egun behar izan ditu. YON PAVON

beste ere bisitatu du: "Ez nago erlijioari lotuta, baina bidean, magia berezi bat sentitu daiteke".

Bisita hunkigarriak

Bakardadearen sentimendua oso presente izan du une batean baino gehiagotan. Frantzian, esaterako, 29 egunez bakar-bakarrrik egin zuen bidea, ez zuen inor topatu: "Bidea egin nuen aurreko aldiak, ez nintzen inoiz hainbeste egunez bakarrik aritu".

Baina bakardade hori goxatu duten uneak ere izan ditu bidaiak. Hainbeste egun, ordu eta kilometro gertukoengandik urrun ibili ostean, bisita "polit"

bat baino gehiago izan ditu Pavonek. "Tolosan (Frantzia), pertsona oso berezi batekin egin nuen topo, eta Iruñara iritsi nintzenez, gurasoak eta lagun minak etorri ziren ni ikustera; oso momentu hunkigarriak izan ziren horiek".

Lehen egunetik, ordea, izan du hutsik egin ez dion bidelagun leial bat: motxila. Biderako behar zituen gauzeekin bete zuen Lasarte-Orian, eta horrelaxe mantendu du Santiago de Compostelara iritsi arte. Egunero saiatu da gehienez, bederatzi kiloko pisuan mantentzen, inoiz ez hori baino gehiago. "Nire bizitza eraman dut bizkarrekoan,

eta bidean nengoen bitartean hori izan denez nire ondasun bakarra, behar bezala zaindu dut".

Motxila hainbeste orduz eta egunez bizkar gainean eramateak, ordea, ondorio batzuk izan zitzaizkela bazekien Pavonek, eta edozein motatako minak saihesteko, gorputzaren

BIDEA EGITEKO AURRE PRESTAKETARIK EZ DU EGIN PAVONEK. LESIO TXIKI BATEZ GAIN, ONDO ERANTZUN DIOTE HANKEK

zaintzari ere arreta berezia jarri dio.

Prestaketarik ez

Bi hilabete eta erdiz erromes bidea egiteko aparteko aurreprestaketarik egin gabe abiatu zen, abuztuan. Egunero joan ohi da kiroldegira ordubeteko saio bat egitera, baina horrez gain, ez da bidea egiteko prestatu. Hori bai, eguneko etapari ekin aurretik, 30 minutuko estiramendu saioak egin ditu beti, eta etapak amaitu ostean ere, abdominalak egiten aritu da, lumbarrak sendotu eta motxilaren pisuarekin gerta zitezkeen lesioak saihesteko.

Esfortzu hori guztia ez da alferrikakoa izan; minik hartu gabe hasi eta bukatu ditu 3.170 kilometroak.

Hanketan, ordea, izan du ezustekorik. Oinetako egokiak aukeratuta, bidea hasi eta egun gutxitara, min hartu eta Italiako fisioterapeuta batekin aritu beharra izan du. Hiru saio hartu eta ezin hobeto moldatu da orduz geroztik; ibilbide osoa hasi eta bukatzeko hiru oinetako pare behar izan dituen arren, aurrera egin du inolako minik gabe.

Erronka handia izan da Pavontentzat 82 egunetako ibilbidea. Uste baino une latz gehiagori aurre hartu behar izan dio, baina indarrak eta gogoak gailendu direnez, lortu du hasierako helburua. Beti aurrera begiratu.

Bere buruarekin egoteko denbora nahikoa izan du, eta hori ere baliatu du hausnarketarako. Konturatu da inguruan daukagunari behar duen balioa eman behar zaiola, eta norbere buruari ere denbora gehiago eskaini behar zaiola.

Santiagora iristeko 100 km. falta zituela jartzen zuen bide-seinalea ikusi zuenean, "poz handia" sentitu bazuen ere, zeresanik ez Galiziako hiriburura iritsi zenean. "Erlaxatu egin naiz, egindako esfortzuarekin oso gustura, eta finkatutako helburuak beteta; ez dut gehiago behar".

Azken kilometroak izan dira erromesarentzat gogorrenak –eguraldi txarregiatatik–, Leonetik Santiagorako ibilbidea, baina hori ere gozatzen jakin du. Orain, Santiagora iritsi eta gero, neke eta esfortzu guztiak agortu ondoren, trenean itzuli da etxera. Bidean itzi du bi pare oinetako, eta hirugarrenak jantzita etorri da, baina ez horrekin bakarrik. Motxilak ere bederatzi kilo baino gehiagorekin egin du itzulerako bidea: 82 egunetako pilatutako bizipenekin gainezka beteta.

Abuztuan hasi zuen bidea amaitu du Lasarte-Oriako bizilagunak, baina horrekin batera, hutsik egin ezin dakioken zerbait eman dio hasiera: bizitzari. Abentura eta gero, ziur beste modu batera bizi eta ikusiko dituela egunerokoak, eta ikasitakotik balioan jarriko dituela horiek. Bizitza, berriro, orain hasten baita, bidea amaitu den momentu berean.

Lekukoa eskuz aldatu da, laugarren aldiz

Azkeneko alditik zortzi urte pasa direnean, lehendakari berria du Ttakun Kultur Elkarteak: Mari Karmen Ormazabalek hartu du Tomas Arrizabalagaren testigua. "Bi legealdi egin ditut: garaia da ideia eta dinamika berriei tokia egiteko; lan bikaina egingo du Mari Karmenek"

Iñigo Gonzalez Sarobe

Mari Karmen Ormazabalek hartu du Tomas Arrizabalagaren lekukoa: bera da Ttakun Kultur Elkarteako lehendakari berria, duela bost hilabetetik. "Bilera batzuk egin genituen aurretik, baina ekaineko Batzar Orokorrean gauzatu genuen ofizialki". Ormazabalek ongi ezagutzen du etxea, makina bat urte daramatzalako bertan, zeregin desberdinetan: langilea izan zen aurrena -1995ean hasi zen beharrean, begirale bezala; TXINTXARRI aldizkarian eta administrazioan ere aritu da-, eta zuzendaritzako kide gero -idazkari lanak egin ditu sei-zazpi urtez-. Lehendakari denetik, ez du "aldaketa handirik" sumatu. Besteak beste, orain tokatzen zaio elkartearen aurpegia izatea ekitaldi askotan, eta aldizkari honetan gehiagotan ateratzea. Adibidez, ostiral honetan. Orrialde zentraletan gainera. Kargua hartu berri duena eta lekukoa pasa duena elkartu ditu TXINTXARRI-K Ttakunenea elkartearen.

Ttakun KEK lau lehendakari izan ditu 28 urtean: Sebastian Kerejeta, Mari Jose Eizmendi, Tomas Arrizabalaga eta Mari Karmen Ormazabal. Arrizabalagak duela zortzi urte hartu zuen ardura, 2011n, zuzendaritza taldean sartu eta berehala. "Ni zuzenean izendatu ninduten lehendakari, baina ordurako han zeuden zuzendaritzako beste kideak, lehenagotik ere lanean ari zirenak", gogoratu du Arrizabalagak. Zortzi urte hauetan "oso pozik eta gustura" aritu dela dio, baina iritsi dela aldaketaren garaia: "Bi legealdi egin ditut

Ttakuneko lehendakari gisa; ideia eta dinamika berriak sustatuko dituen pertsonak sartu behar dute, ona da hori elkartearentzat". Gehitu du berak ere sentitzen zuela atsedean hartzeko beharra. "Zuzendaritzako kidea izatea ardura da".

Hori izan da Ormazabalek erreleboa hartu izanaren arrazoietakoa bat: deskantsatzeko aukera ematea Arrizabalagari. Dena dela, argi utzi du epe jakin baterako hartu duela konpromisoa. Printzipioz, bi urterako. "Uste dut mugimendua behar duela herri elkarte batek; zuzendaritza berri bitartean hartu dut lehendakari izatearen ardura". Gai horri buruz solasean aritu dira biak. Haien hitzetan, aldaketa horrek ez du izan behar bat-batekoa, progresiboa baizik: sar dadila odol berria taldean, baina zuzendaritzari eta Ttakun KEren dimentsioari neurria hartu bitartean, egon daitezela beste kide batzuk laguntzen, jada urte batzuk daramatenak han; eskarmentua daukaten pertsonak.

"Nik lehendakari gisa egin ditudan zortzi urteetan, taldean egin dugu lan beti, zuzendaritzako gainontzeko kideekin; denon artean hartu ditugu erabakiak", azpimarratu du Arrizabalagak. Baietz dio Ormazabalek; urte horietako asko elkarrekin egin dituzte, duela sei-zazpi urte sartu baitzen bertan. Idazkari lanak egin ditu orain arte. "Orain ez ditut aktak idatzi behar; hori ere bada aldaketa bat", aipatu du, umoretsu. "Lehendakariaren lana instituzionalagoa da: elkartearen aurpegia izatea askotan: hitzarmenak sinatzerakoan,

elkarteak berak egiten dituen ekimenak aurkezterakoan eta horrelakoetan".

Ttakun KEko lehendakari berriak egiaztatu du hori honezkero, atera delako argazki ugarietan: udalarekin 2019-2020 ikasturterako akordioa sinatzerakoan eta Gurasoleku egitasmoa aurkezte aldera egindako erreportajearen. "Eta 2020. urtea dator berehala: Maratoia, Euskaraldia... Ari naiz ohitzen!". Lehenengo hilabeteetan gustura ari dela dio Ormazabalek.

Langileen garrantzia

"Ttakunena bezalako dimentsioa daukan elkarte batek ezingo luke aurrera egin langileengatik ez balitz", nabarmendu du Tomas Arrizabalagak, lehendakari ohiak. Bat dator Mari Karmen Ormazabal: "Funtsezkoak dira, zuzendaritzan gaudenok ezin dugulako jarraitu eguneroko martxa; lantalde ederra daukagu, egia esan". Gogoratu ditu elkartearen hasierako urteak. "Lanaldi erdiz aritzen zen pertsona batetik, begira noraino heldu garen". Bulegoko teknikariez eta

ORMAZABAL: "GAUZA ASKO ALDATU ETA HOBETU DIRA NI TTAKUNEKO LANGILE IZAN NINTZENETIK"

ARRIZABALAGA: "JENDEAK SENTITU BEHAR DU EUSKARA BEHARREZKOA DUELA BIZITZEKO"



Zortzi urteren ostean, lehendakari kargua pasa dio Tomas Arrizabalagak Mari Karmen

kudeatzaileaz gain, pertsona ugari egiten dute lan kultur elkartearen Ttakunek gauzatzen dituen hamaika egitasmoetako begiraleak, TXINTXARRI aldizkaria banatzen dutenak... "Ni langile izan nintzenetik gaur egunera arte gauza asko aldatu eta zuzendu dira", adierazi du Ormazabalek. Elkarteak bere burua auditatzea eta langileen egoera legala "behar bezala" landu izana ere aipatu dituzte. "Joera haztekoa izan da, baina logikarekin beti".

Arrizabalagaren aburuz, eragina dauka horretan nolabaiteko "lasaitasun ekonomikoa" edukitzea elkarteak. "Bestela, indarrak alor horretara bideratu behar dituzu, benetako xedeari heldu beharrean: euskara normalizatzea Lasarte-Orian". Ttakunen finantza-egoera egonkortzen laguntzen dute erakunde publikoek ematen dizkioten diru-laguntzek, baina baita elkartearen langileek egitasmo berriak diseinatzeak, eta jada indarrean daudenak hobetzeak, Ormazabalen ustez. "Inor ez da aberastuko; dirua izanez gero, berriro inbertitzen da". Esate baterako, pertsonalean. "Kontziente gara zenbaitetan estu gabiltzala pertsonalari dagokionez; saiatzen gara behar horiek asetzen

ahal den heinean, baina prudentziaz ere jokatu behar da". Arrizabalaga: "Esan izan didate negozioa egiten duela Ttakunek, diru publikoa jasotzen duelako; hori ez da egia, elkartearen xedea ez delako dirua egitea, euskararen alde lan egitea baizik".

Zer da Ttakun?

Azpititularrekoa izan da solasaldiko galderetako bat. "Euskara eta kultur elkarte bat baino gehiago da Ttakun, oso indartsua Euskal Herri mailan", bota du Arrizabalagak. Herritar askoren bizitzen parte dela esan du Ormazabalek: "Aisialdiko ekintzetatik hasi, haurra zarenetik, hazten eta heldu bilakatzen zaren arte, hor dago Ttakun, denentzat ekintzak antolatzen; berebizikoa da hori, normalizazioaren bidean". Hala ere, onartu du ez dela erraza horrelako elkarte bat esaldi bakarrean definitzea. "Martxan jarri dugun lehiaketarako esloganak pentsatzen hasi nintzen. Esan nuen: 'Zer ideia ona!'. Eta geroxeago: 'Zaila da hau!'. Bat-batean desagertuko balitz, herrian egiten diren ekintzetako asko umezurtz geratuko lirake". Horietako batzuk zerrendatu ditu Arrizabalagak: San Tomas azoka,



Ormazabali. Elkartearen laugarren lehendakaria da herritarra. TXINTXARRI

Azkorteko erromeria eta Santa Ana parodia, besteak beste.

Zeintzuk dira Ttakun KEren erronkak? Beste galdera bat. Eta erantzunak. Edo hausnarketak. Edo bietatik apur bat. Hitz egiteko txandak errespetatuz, hori bai: bata ez du bestearen solasaldia moztu, eta alderantziz. "Askotan aritu naiz horri buruz nire ingurukoekin", hasi da Ormazabal. "Errealitate utopiko batean, lan egiteko era eta xedeak aldatu

beharko lituzte Ttakunek; horrek esan nahiko luke lortu dela helburua, guztiz normalizatu dela euskara eta euskal kultura gure herrian". Ohartarazi du lan asko dagoela egiteko norabide horretan oraindik. Arrizabalagak hartu du hitza ondoren: "Herritarrek sentitu behar dute beharrezkoa dutela euskara; gaztelania hutsean hitz egiten dutenak lasai asko bizi dira". Hutsune ugari ikusten ditu administrazioan eta hainbat

ogibide publikotan: "Udaltzain, ertzain, osasun arloko langile eta udal langile guztiek ez dakite euskaraz; horrek ezin du izan. Koska handi samarra dago hor".

Lasarte-Oriaren egoera aztertuta, biek uste dute gaintitu dela garai batean herritar askok euskarari zioten ezin-ikusia. "Ttakunen lanak zerikusia izan du horretan". Euskararen ezagutza maila ere dezente igo da, inoizko portzentaje altuenera iristeraino, baina erabilera ez da proportzio horretan igo. "Herritarren jarrera aldatzea da gakoa: jendearen emozioak astinduz gero, mugitzen da zerbait hor barruan".

2020a, Euskararen Maratoiaren urtea Emozioekin loturarik daukan ekitaldi bat badago herrian, hori da lau urtean behin antolatzen den Euskararen Maratoia. 2020an X. edizioa egingo dute. "Hasi gara lanean dagoeneko", aurreratu du Ormazabalak. "Ea zer bururatzen zaigun, baina x horrek joko asko eman dezake; lantaldean ideia bikainak dauzkaten pertsonak daude". Arrizabalagak esan du ekitaldi horrek "asko" lagundu duela euskararen normalizazio prozesuan, eta herria saretzen ere bai. "Asko inplikatzin dira herritarrek, elkarrekin, ikastetxeak, erakundeak...denak". Lantaldeari luzatu dio proposamen bat: "40 ordu izan ziren aurrean, 40 egun gero...365 egunak euskaraz, edo horrelako zerbait!". Maratoia eta gero -urrian ospatu ohi da-, Euskaraldia etorriko da.

Horiek baino lehen, badaude ospatzeko hainbat gauza. Ttakun KEren 28. urteurrena, adibidez. Larunbat honetan itzaliko ditu

kandelak, hilak 16. "Izan zitekeen beste herriren batean, baina ez; Lasarte-Orian sortu zen Ttakun, beharra zegoelako euskararen egoerari astindu bat emateko", dio Ormazabalak. Arrizabalaga: "Ezin ditzakegu ahaztu pertsona boluntario askoren ekarpenak: ideiak argi zeuzkaten hasieratik, eta euskararen alde sekulako lana egin dute". Herrian jende "oso baliotsua" dagoela uste du lehendakari berriak, elkartearen inguruan ere egon dena. "Prest egon dira euren ideiak, jakituria eta eskarmentua eskaintzeko".

Boluntario edo langile, ehunka pertsonak egindako lanari esker erroto da Ttakun herrian, eta gaur egun daukan dimentsioa hartu. "Lasarte-Orian martxan ditugun hamaika egitasmoez gain, herritik atera gara: Lezo, Pasaia, Beasain...hori ere bada hazi garen seinale", aipatu du Ormazabalak. Berak eta Arrizabalagak uste dute herritarrek ezagutzen dutela oro har Ttakun, baina ez dutela imajinatzen zer nolako lana dagoen horren guztiaren atzean.

Arestian esan bezala, 28 urte beteko ditu Ttakunek asteon. "Nik uste dut beteko dituela beste asko, normalizazio prozesuaren gauzatzea ez delako egun batetik bestera etorriko", adierazi du Ormazabalak. "Egokor fama daukagu euskaldunok; helburu horren bidean segiko dugu lanean. Osasun ona dauka Ttakunek, eta lehendakari bikaina!", gehitu du Arrizabalagak, umorez. Barrez erantzun dio Ormazabalak: "Egiten dizkirate txantxak, lehendakari anderea" eta horrelakoak; nik ere antzeko bromak egiten ditut. Odolkiak ordainetan orain!".

TTAKUN KULTUR ELKARTEKO LEHENDAKARI HISTORIKOAK

SEBASTIAN KEREJETA
1991-2003MARI JOSE EIZMENDI
2003-2011TOMAS ARRIZABALAGA
2011-2019M. KARMEN ORMAZABAL
2019-?

LASARTE-ORIA EUSKALDUNTZEN, 28 URTEZ

Euskara eta euskal kultura normalizatzea Lasarte-Orian. Helburu hoiekin jaiotzen Ttakun Kultur Elkartea, 1991. urteko azaroaren 16an. Larunbat honetan beteko ditu 28 urte. Pasa dira ia hiru hamarkada, eta hasierako xede eta ilusio horiek bizirik jarraitzen dute.

Elkartearen lehenengo egitasmoak udaleku irekiak eta euskal txokoak izan ziren. Horiek jorratzen hasi aurretik, elkartearen sortzaileek egina zuten lanketa bat: ikusi zuten beharrezkoa zela urrats bat egitea aisiaren eta haurren inguruan lanean hastea, herria euskalduntzen hasteko lehen pauso gisara.

Urte batzuk beranduago sortu zen Kuku-Miku haurren eta gazteen saila, alor hori indartzeko. 2003. urtean Aisia saila izatera pasa zen. 2003-2004 ikasturtean Amaraun Kluba sortu zen; 2008an, berriz, Gaztekluba.

Arestian aipatutako programez gain, urteen poderioz beste hainbat garatu ditu Ttakunek: Kuadrillategi, Faktoria, Irakutrezin aldizkaria, Eskola Kirola edota LMLK, besteak beste.

1993ko urriaren 1a izan zen beste mugarri bat: orduan sortu zuen elkarrekin TXINTXARRI aldizkaria. Egun horretan kaleratu zuen lehenengo alea. Beste 1.482 etorri dira atzetik.

Hamaboskaria zen hasieran; tirada, 3.000 alekoa. Astekari bilakatu zen 2000. urtean. Gaur egun, ostiralero jasotzen dute lasarteoriarrek euren buzoietan. Ia hiru bider ale gehiago inprimatzen dira orain: 8.000.

Ibilbide luzea eta emankorra izan da elkartearena. Hori dela eta, jaso ditu zenbait aitortza. 2000. urteko abenduan, euskalgintzako Anton Abardia saria eman zion Gipuzkoako Foru Aldundiak. Urte horretan bertan, Herri Onurako elkarte izendatu zuen Ttakun Eusko Jaurilaritzak. 2015ean, berriz, Bikaintasun saria jaso zuen kultur elkarrekin.



Eguraldi kaxkarra, denborarik onenak

55. Behobia-Donostia lasterketan, Gorka Gil eta Maite Salazar izan dira herritarrik azkarrenak. Gilek proba gogotik prestatu eta bere marka bost minututan jaitsi du, Raul Gomez Margallo herritarren laguntzaz. Orain Donostiako maratoi erdia du buruan

Nerea Eizagirre

Chakib Lachgar eta Gema Marchina izan ziren 55. Behobia-Donostiako helmugan lehenak. Baina ez ziren mendeurreneko lasterketako garaile bakarrak izan, 26.800 irabazle izan baitziren Donostiako helmugara iritsi zirenak.

Zalantzarik gabe eguraldia izan zen protagonista. Eurria, txingorra, haizea eta hotza. Baina Behobia-Donostia ez da nolanhiko lasterketa eta 27.070 korrikalari bildu ziren Behobiako irteeran. 265 pertsonen lasterketa utzi behar izan zuten, eta, helmuga igaro ostean, 1422 deskalifikatu zituzten.

Lasarte-Oriako 180 herritarrek izena emana bazuten ere, 151 korrikalarik igaro zuten Bulebarreko helmuga. Guztien artean, Gorka Gil eta Maite Salazar izan ziren azkarrenak. Lehenak 1.08.57ko denbora egin zuten; Salazarrek, berriz, 1.27.46 behar izan zuten helmugara iristeko.

Gorka Gilek oso pozik amaitu zuten Behobia-Donostia lasterketa.



Behobia-Donostian parte hartu duten korrikalarietako batzuk. ISAAC FARRE RICO

Bosgarren aldia du herritarrek lasterketa herrikoian eta denetatik onena izan da beretzat. Bere marka onena ia bost minututan jaitsi du.

"Nire helburua parte-hartze guztietan dortsal horia zen. Baina aurreko saiakeretan ez nuen nire burua prest ikusten. Oraingoan ongi prestatu eta lortu dut", azaldu du herritarrek.

Behobia-Donostia prestatzeko ez du atsedenik hartu Gilek. "Ez dut entrenamendu berezirik egin. Astebururo lasterketaren batean parte hartu dut. Luzeena, Donostiako

klasika izan da, hamabost kilometrotakoa. Lasterketarik ez badago, aspertu egiten naiz. Entrenatzea ongi dago, baina lehia nahiago dut. Oso argi daukat. Lasterketa da entrenamendu onena".

Lagun baten laguntza

Raul Gomez Margallo herritarrek lagundu zion lasterketa egunean. "Raulek asko lagundu dit. Animo asko eman zizkidan Behobia prestatzeko. Bidean zehar ere elkarri animoak ematen joan ginen. Kontuan izan behar da,

Raulek ez zuela Behobia egin nahi. Nik egin behar nuen, berak ere parte hartzea erabaki zuen. Baina ez dut uste berriro engainatuko dudarik".

Lasterketako hoge kilometroak elkarrekin egin zituzten, kilometro batzuk izan ezik. "Beroketan Rauli esan nion, 'gaur nire eguna da', eta erritmo bizkorra jarri genuen. Kaputxinosen lokarria askatu zitzaion Rauli eta geratu behar izan zuten. Arazoak izan zituen hotzarengatik berriro lotzeko eta ni aurreratu nintzen. Baina harrapatu ninduen".

Izan ere, Ategorrietako gaineko aldapan estualdia izan zuten. "Igoerak amaiezina zirudien. Momentu gogorrena izan zen. Raulek orduan egin zuten nirekin bat, eta tartetxo bat ere ireki zuten. Baina jaitsieran berriro erritmoa hartu eta harrapatu nuen".

Amaierarako ere indarrak gorde zituen. Azken metroetan bi herritarrek esprinta lehiatu eta Gil gailendu zen. "Bigarrenez irabazi dut Raul esprintean. Hori ez da ohikoa izaten", onartu du barre artean.

Ez du uste hurrengo urteko Behobia egingo duenik, baina hilabete batzuk ditu aurretik pentsatzeko. Orain, azaroaren 24an, igandez, jokatuko den Donostiako Maratoi erdia du jomuga. "01.15.00 edo 01.14.00 egin egin nahi dut Maratoi erdian. Baina ikusiko dugu, Behobia-

Donostiako lanak eragin baitezake lasterketan".

Lesioa udan

Udako lesio batek Maite Salazarren Behobia-Donostiako parte-hartzea kolokan jarri zuen. "Udan kolpe bat hartu nuen belaunean eta horrek lasterketako prestaketak atzeratu zituen. Horregatik, entrenamenduak hasi nituenean, helburua lasterketarako prest egotea zen".

Ongi lortu du gainera, iaz egindako denbora -01.29.30- ia bi minutuan ondu du. Pozik dago horregatik herritarra.

Lasterketa hasi eta sentsazio onak izan zituen Salazarrek. "Hasieratik ongi ateratu nintzen eta 15. kilometroan, 01.30.00 banderadun erbia gertu nuen. Atzetik nindoan, baina indarrez nengoela ikusita aurrea hartu eta nire kabuz egin nituen gainerako kilometroak".

Eguraldia ez zen oztipo izan Maiterentzat. "Niretzako eguraldi aproposa zen. Hotza egitea gustuko dut. Haizearekin, ordea, asko sufritu nuen. Kursaleko zuzengunean haize handia zegoen. Lasterketako tarte horretan, indarrez justu zoaz eta kontra egin behar diozu. Helmuga ere gertu duzu, azken ahaleginak egin behar dituzu. Ez da erraza".

Salazarrek ez du lasterketarik buruan, baina urtea amaitu baino lehen lasterketa herrikoien baten parte hartu nahiko luke.

ASTE BURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONALA
Ostadar SKT - Zumaiaiko FT Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.
ERREGIONALEN GORENGOA
Roteta CD - Ostadar SKT Larunbata. 17:30. Herrera, Donostian.
JUBENILEN 1. MAILA
Segura Goierri FT B - Ostadar SKT B Larunbata. 16:00. Alustiza, Seguran.
Ostadar SKT A - Lazkao KE Larunbata. 17:15. Michelin kirol gunean.
KADETEEN OHOREZKO MAILA
Beti Ona CD - Ostadar SKT Larunbata. 13:00. Beraun, Errenteria.
KADETEEN 1. MAILA
Ostadar SKT A - Danena KE A Larunbata. 13:30. Michelin kirol gunean.
Idiazabal KE - Ostadar SKT B Larunbata. 15:30. Elorri, Alegian.
Ostadar SKT - Urnieta KE Larunbata. 12:00. Michelin kirol gunean.
INFANTILEN OHOREZKO MAILA
Zumaiaiko KE - Ostadar SKT Igandea. 10:30. Aita Mari, Zumaian.
INFANTIL TXIKIA, SAILKATZE FASEA
Ostadar SKT - Danena KE Larunbata. 15:00. Michelin kirol gunean.

INFANTILEN 1. MAILA
Internacional CD - Ostadar SKT A Larunbata. 10:30. Matigoxotegi, Donostian.
Ostadar SKT B - Udarregi Usurbil FT B Larunbata. 10:30. Michelin kirol gunean.
ARETO FUTBOLA
SENIORRAK, 1. MAILA
Eguzki Aldaz H.K. - SD Euskalduna Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kir.
Eguzki Garoa - Tolosala KE Orbel Taberna Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kir.
SENIOR 2. MAILA
Donibane Stokke- Eguzki ISU Leihoak Ostirala. 21:30. Pasai Donibaneko kiroldegian.
JUBENILAK
Eguzki 2KN - Eguzki Balerdi Harategia Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kir.
SASKIBALOA
SENIOR PROBINTZIALA, 1. MAILA
Ostadar SKT - Grupo EME Oiarso SKT Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kir.
SENIOR PROBINTZIALA, 3. MAILA
Ostadar SKT - CD Internacional Igandea. 11:15. Maialen Chourraut kir.

JUNIOR ERRENDIMENDUA
Goierri UZ Baleike - Ostadar SKT Larunbata. 12:15. Aldiri kir., Urretxun.
JUNIOR PARTAIDETZA
Typo 90 Askatuak Davis- Ostadar SKT Larunbata. 18:00. Benta Berri kir., Donostian.
KADETE ERRENDIMENDUA
Ostadar SKT - Panelfisa TAKE Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kir.
KADETE PARTAIDETZA
Cafes Aitona Askatuak Deba - Ostadar SKT Igandea. 10:00. Paco Yoldi kir., Donostian.
INFANTIL HAUNDI
Bera Bera Grupo Elektra - Ostadar SKT Haundi Larunbata. 09:15. Manteo kir., Donostian.
INFANTIL TXIKI
Ostadar SKT Txiki - Easo Sorgintxulo Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kir.
PILOTA
PROFESIONALA, BINAKAKOA
Arteaga II eta Etchegoien - Bakaikoa eta Iturriaga Larunbata. 19:30. Lanciego, Araban.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA, 2. KADETEA
Tolosa 1 - Intza Igandea. 10:30. Beotibar, Tolosan.
IGERIKETA
ALEBIN LIGA
Buruntzaldea IKTKo alebiren Ligako 2. jardunaldia dute. Larunbata. 18:00. Allurralde kir., Andoainan.
JUDO
AMURRIOKO TXAPELKETA
LOKEko infantil eta kadete mailako judokak Amurrio Hiribilduko XXVI. judo txapelketan lehiatuko dira. Larunbata. 10:00 eta 15:00. Amurrio, Araban.
IPAR SEKTOREA
LOKEko seniorrek Espainiako txapelketarako ipar sektoreko sailkapen txapelketa izango dute. Igandea. Amurrio, Araban.
ERRUGBIA
EUSKAL LIGA
La Unica B - Babyauto ZRT Beltzak Larunbata. 16:00. UPNA, Iruñean.
18 URTEZ AZPIKOAK
Hernani/Aletico San Sebastian - Babyauto Zarautz/Beltzak Larunbata. 11:30. Landare, Hernanin.

16 URTEZ AZPIKOAK
Mutriku/Zarautz/Beltzak - Hernani/Aletico San Sebastian Larunbata. 14:15. San Miguel, Mutrikin.
LASTERKETAK
PARKINSONAREN AURKAKO KILOMETROAK
Hainbat herritarrek 6 kilometrotako proban parte hartuko dute. Igandea. 11:00. Miramon, Donostian.
MENDI LASTERKETAK
III. EZKIOKO LASTERKETA
Ezkioko Mendi lasterketa mistoan lehiatuko dira herritar batzuk. Larunbata. 10:30. Ezkion.
LEMOAX TRAIL
Lasarteoriatar talde batek 24 kilometroko proba egingo du. Igandea. 10:00. Lemoa, Bizkaian.
MENDI DUATLOIA
ARAMAIOKO DUATLOIA
Herriko hainbat kirolari Aramaioko I. Mendi duatloian lehiatuko dira. Igandea. 10:30. Aramaio, Araban.

Ostadarreko erregional taldeak, puntuz puntu

Ohorezko Erregionalak bana berdindu du; Ordizian eta Erregionalen Gorengoak 3-1 garaitu du Astigarragako Mundarro, Michelin kirol gunean. 'Pitu' Rodriguezen taldea txapelketako bigarren postuan da, hemezortzi punturekin, bederatzi partida jokatuta

Nerea Eizagirre

Ostadar SKTko erregional taldeek puntuak lortu zituzten azken jardunaldiko norgehiagoketan. Ohorezko Erregional mailako taldeak puntu bakarra lortu zuen Ordizian; Erregionalen Gorengoak, berriz, hiru puntuak etxean geratzea lortu zuen.

Astigarragako Mundarro izan zuen aurrez aurre Raul Pitu Rodriguezen taldeak. Erritmo handiko hasiera izan zuen partidak. Astigarragako Mundarro balaia batetik bestera mugitu zuen aukerak sortu nahian, baina urdin-beltzek erasoak gelditzen jakin zuten. Eta baloiaren jabetza berdindu zen. Bi taldeak iritsi arerioaren atea bilatzen zuten, baina Ostadar izan zen lehena aurreratzen, korner bati esker. Mundarrok ez zuen amore eman eta lehen zatia banako berdinketarekin amaitu zen.

Akatsak zuzentzen jakin zuen Ostadarrek bigarren zatian eta Mundarrori gola egiteko aukerak gutxitu zitzaizkion. Baloia ongi mugituz, bezte bi gol egin zituen etxeko taldeak eta 3-1 gailendu zen Astigarragako taldeari.

Garaipen horri esker, hemezortzi puntu ditu Erregionalen Gorenak eta sailkapeneko bigarren postuan da, Dunboa Eguzki taldearekin berdinduta. Rodriguezek ez dio



Erregional Goreneko mutilek hiru puntuak eskuratu zituzten. TXINTXARRI

garrantzia handirik ematen bigarren postuari. "Partidaz partida joango gara ikusten taldearen ibilbidea zein den. Talde guztiak gaude puntu gutxitara eta ezin da jakin nola amaituko dugun".

Aste honetan Roteta izango da haien arerioa. Donostiako taldeak hiru puntu gutxiago ditu sailkapenean, eta, horregatik, partida zaila aurreikusten du Rodriguezek. "Hiru puntura ditugu. Etxean puntuak lortu nahiko dituzte eta gu bigarrenak izanik, ziur partida hasieratik gozoz arituko direla. Guk haien

jokoari aurre egiteko prest egon beharko dugu".

Puntu bat

Puntu bat puntu sailkapen erdialdean lekua egiten ari da Ostadarreko Ohorezko Erregionala. Lehengo larunbatean, Goierri Gorri taldearekin bana berdindu zuten urdin-beltzek.

Partida zaila aurreikusitako zuten Nekane Quiñones entrenatzaileak. "Nahiz eta Goierri Gorri sailkapenean azpitik egon, ezin ginen fio. Kanpoan jolastu behar genuen eta ez zen partida erraza izango".

Zailtasunak izan zituzten bi taldeek lehen zatian baloiaren jabetza izateko. "Eguna kaxkarra zen. Ezin genuen baloia nahi genuen bezala mugitu. Ezin genuen eroso jokatu". Ondorioz husnako berdinketarekin iritsi ziren atsedena aldira.

Bigarren zatian, lehen hoge minutuetan, indartsuago jokatzeko zuten urdin-beltzen asmoa. "Hegaletik baloia eraman eta bertikalki baloia jolasteko hautua egin nuen. Atzean ahalik eta akatsik gutxienez izanik".

Joko horren ondorioz, Ostadarren gola etorri zen. "Pase bat atzera joan zen eta hortaz baliatuz, gola sartu genuen".

Quiñonesen taldeak, ordea, ezin izan zuen atea hutsean mantendu. "Kontra baten ondoren berdinketako gola egin zuen Goierri Gorri. Pena da garaipen lortu ez izana. Puntuak kanpoan lortzea oso garrantzitsua da eta oraingoz horretan larri gabiltza".

11 punturekin taularen erdialdean da taldea, zortzigarren postuan, hain zuzen ere. Hala ere, gora begira dago Nekane Quiñonesek zuzendutako taldea. "Helburua ikasi eta gora egitea da. Txapelketako lehen zatian talde indartsuak izan ditugu aurrez aurre, orain Zumaia, Urnieta edo Touringen txanda izango da. Partida horien ostean, ikusiko da gure lekua zein den".

Hain zuzen ere, Zumaia izango da aste honetako arerioa, Michelingo kirol gunean. "Gure azpitik daude, baina ezin gara erlaxatu".

Hiru puntuak etxean geratze aldera, lehengo asteko akatsak landu dituzte astean zehar. "Jokaldi amaierak landu ditugu, batez ere, ate aurrean ez baikara eraginkorrak. Jokalariak ongi ari dira lanean. Motibazio handia dute eta esfortzu handia egiten ari dira".

Etxean jokatzeko ere motibazio berezia dela uste du Quiñonesek. "Etxean kasta ateratzen dugu. Gogotsu ateratzen dira zelaira. Erosoago eta motibatuago jolasten dute".

Greba Iberdrola Ligan

Lurreko txapelketak aurrera darrai, baina Iberdrola Ligak etena izango du. Ligako jokalariek mugagabeko greba hasiko dute aste honetan eta Real Sociedad taldeko jokalariek, Iraia Iparragirre herritarra haien artean, bat egin dute.

Urriaren 22an, hamasei taldeetako ordezkariak bildu ziren Madril en AFE futbolarien sindikatuak deituta. Bertan ziren Realeko jokalariek. Negoziazketen berri eman eta grebara joan edo ez bozkatu zuten. %93ak greba egitea adostu zuen.

2018ko azaroaren 8an lan hitzarmena negoziatzeko mahaia eratu zen. Kluben elkarteak Athletic, Bartzelona eta Tacon izan ezik klub guztiak ordezkatzeko dituzte eta futbolarien sindikatuek AFE, FutbolON eta UGT urtebete daramate hitzarmeneko puntu ezberdinak aztertzen. Hainbat ontzat hartu dituzte klubek elkarteak, gutxienez soldata gordina urtean 16.000 eurokoa izatea, esate baterako.

Gaunditu ezinezko koska lanaldiaren iraupenean dago. Futbolariak gutxienez %75ekoa izatea nahi dute; klubek elkarteak, aldiz, jardunaldi erdikoa.

Egoera desblokeatu nahian, astelehenean bilera berria egin zuten mahaia, Espainiako Kirol Kontseilu Nagusiko ordezkariekin batera. Baina alde bakoitzak bereari eutsi eta akordioa ez da gauzatu. Hurrengo asteetarako ere ez dute bilerarik adostu. Mugagabeko grebak aurrera darrai, beraz.

Intzak bigarren mailan jokatu du hurrengo denboraldian

Behar Zanak bikoteak 22-9 irabazi du. Urbieta atzelariaren lanak ezustekoz harrapatu ditu Intzakoak

Txintxarri

Intzako lehen mailako bikoteak ezin izan dio mailari eutsi. Behar Zana elkarteko bikotea nagusi izan zen larunbatean, Villabonan jokatuako partidaren, 22-9. Jon Pello Artetxe eta Mikel Elola

bikoteak bigarren mailan jokatu du hurrengo ikasturtean.

Larunbatean, lehen mailako promozioa zuen jokoan Intzako bikoteak. Aurrean Behar Zana elkarteko Lizaso eta Urbieta zeuden. Artetxe eta Elola ez ziren

urduri atera kantzara, baina etxeko bikoteak eta, batez ere, Urbieta atzelariak, hobeto jokatu zuten.

Behar Zanak aurre hartu zuen lehen minututik markagailuan, 5-0. Intzako bikotea partida berdintzen saiatu zen, baina tartea ederki mantendu zuen Lizaso-Urbieta bikoteak. 9-14koan hautsi zen partida. Urbieta atzelariaren joko aldaketa egon zen. Sakeak motz jokatzeko zituen, lau edo bostetik airez jotzen zuen eta ezkerrekin erantzutera behartzen zituen Artetxe eta Elola. Ezin izan zuten ezer egin.

Eizagirre, zazpigarren

LOKEko Eneko Eizagirre judoka Espainiako Junior Kopan izan zen lehengo asteburuan Euskadiko selekzioarekin lehian. Bi borrokaldi galdu ostean, zazpigarren postua eskuratu zuen. Txapelketa nagusian, Kantabriako Centenok utzi zuen finaleko bidetik at eta Torres kanariarraren aurka galdu ostean, brontzeko domina lortzeko aukerari ere agur esan zion Eizagirrek.



GORKA ARISTEGI



Sakeekin puntu asko lortu zituen Ostadar Boleibolak joan den larunbatean, Fortunaren aurkako partidari. TXINTXARRI

Egiten denean sinetsiz gero, dena da errazagoa

Gipuzkoako Txapelketa prestatzen jarraitzen du Ostadar Boleibolak. Irekiera Torneoa jokatu du Gabonetara arte. Asteburuan lortu du lehenengo garaipena, Fortunari 3-0 irabazita. Astez aste eta entrenamenduz entrenamendu, gero eta batuago daude taldekideak

Itziar Gonzalez Sarobe

"Oso pozik nago taldearekin: jokalariek sekulako gogoak dituzte entrenatzera etortzeko eta egunetik egunera hobekuntza izateko; askoz errazagoa da horrelako kirolariarekin lan egitea". Asier Acuriolaren hitzak dira horiek, Ostadar Boleibolaren entrenatzailearenak. Gipuzkoako Txapelketa prestatzen jarraitzen dute urdin-beltzek; Irekiera Torneoa jokatzen ari dira orain. Gabonetako oporraldia iritsi aurretik bukatuko dute.

Asteburu honetan poltsikoratu dute aurreneko garaipena, Fortunaren aurka, 3-0. Joan den larunbatean neurtu zituzten indarrak Maialen Chourraut kiroldegian. Lehenengo bi setak ederki jokatu zituen etxeko taldeak: min handia egin zien aurkariei, sakeekin batez ere. "Taldeak erakutsi zuen badoala barneratzen astean zehar lantzen ditugun kontzeptuak", adierazi du entrenatzaileak. Lau eta zazpi puntuko aldeak mantendu

zituzten uneoro, eta nahikoa eroso jokatu zuten.

Hirugarrenean, ordea, komeria gehiago izan zituzten. Galdu egin zuten partidaren kontrola, eta ederki baliatu zuten aukera donostiarrek aurrea hartzeko markagailuan: 15-21. Urdin-beltzek ez zuten etsi, ordea, eta lortu zuten egoera iraultzea; beste behin, saketik. 27-25koa izan zen azken setaren emaitza. 3-0. Garaipena.

Gipuzkoako Txapelketa

Taldearen erreakzioarekin pozik dago Acuriola. "Hirugarren setean jokalariek erakutsi zuten oso lehiakorrek direla, eta azken puntura arte konpetitzeko gai direla". Ostadarrekin batera,

HAMABI JOKALARIK OSATZEN DUTE OSTADAR BOLEIBOLA; LAU AURTEN HASI DIRA JOKATZEN

beste zazpi talde parte hartzen ari dira Irekiera Torneoan; 2020ko urtarrilean hasiko den Gipuzkoako Txapelketa prestatzeko aukera ezin hobea da. "Jokatu ditugun beste bi neurketak galdu egin ditugu, baina ez nau kezkatzen, normala da. Talde oso indartsuak daude; gu hasi besterik ez gara egin". Senior mailako sei jokalaririk ari dira Ostadarren; jubenilak dira beste seiak. Horietatik lau aurtun murgildu dira boleibolean.

Gipuzkoako Txapelketa jubenil mailan jokatzea zen Ostadar, baina baliteke azkenean horrela ez izatea, uste baino talde senior gehiago apuntatu direlako. "Federazioa pentsatzen ari da bi fase final egitea: seniorrentzat bat, eta jubenilrentzat bestea", azaldu du Acuriolak. "Ederra litzateke hori: are motibatuago egongo gara".

Larunbat honetan beste aukera bat edukiko dute herritarrek boleibolaz gozatzeko. Goierriren aurka ariko dira urdin-beltzak, kiroldegian, 13:30etik aurrera.

Denboraldiko lehen Eguzki ISU eta Balerdi Harategiarentzat

Eguzki Areto Futboleko bost talde federatuetatik lauk jokatu dute asteburuan; hiruk irabazi dituzte partidak

Txintxarri

Denboraldiko lehen garaipena poltsikoratu du Eguzki ISU Leihoak taldeak asteburuan. Senior kategoriako Gipuzkoako 2. mailan ari da lehen. 0-1 hartu zuen mendean Goierri FK Jon Arocena herritarrek zuzendutako taldeak. Bost neurketa jokatu ditu orain arte, eta lau puntu bildu: 10. postuan da sailkapenean.

Jubenil mailako Eguzki Balerdi Harategiak ere asteburuan ospatu du sasoiko aurreneko partida irabazi izana. Zaleen aurrean poltsikoratu zituzten hiru puntuak Gorka Redondo eta Edu Menarenek: 3-1 garaitu zuten Goierri KE. Sei norgehiagoka jokatuta, lau puntu daukate, eta 10. postuan dira sailkapenean.

Emakumezkoen senior taldeak atsedean hartu du asteburuan. Ederki ekin zion ligari, baina jokatutako azken bi neurketak

galdu egin ditu. Bihar du abagune polita, larunbata, dinamika hori hausteko eta beste hiru puntu zakuratzeko. Tolosala KErekin neurtuko ditu indarrak, Maialen Chourraut kiroldegian.

Eguzki Aldaz H.K., sasoi betean

Senior kategoriako Gipuzkoako 1. mailan ari den Eguzki Aldaz Hertz Klinika izan da liga ongien hasi duen taldea. Mikel Narciso eta Cristian Arroyoren jokalariek 9-3 irabazi zioten Gaintxu AFTri, pasa den ostiral iluntzean. Seitik lau neurketa irabazita, hamahiru puntu bildu dituzte. Sailkapenean goialdean daude, 3. postuan.

Jubenil mailako Eguzki 2KN taldeak ezin izan zuen gainontzeko talde federatuen dinamika jarraitu, eta 5-2 galdu zuen Zarautzen aurka. Denboraldi ona egiten ari da, hala ere: 5. postuan da, hamabi punturekin.

Buruntzaldea IKTko igerilariak 22 marka pertsonal ondu dituzte

Neguko Ligako bigarren jardunaldia jokatu dute infantil, junior eta absolutuek Ordiziako Majori kiroldegian

Txintxarri

Uzta oparoa bildu dute Buruntzaldea IKTko igerilari infantil, junior eta absolutuek Ordizian, Neguko Ligako bigarren jardunaldian. 22 marka pertsonal ondu dituzte, eta igeriketa egokituko taldeko hiru errekor berri ezarri. Hiru kategoria horietako hemezortzi kirolari aritu ziren Majori kiroldegiko igerilekuan. "Gogotsu" lehiatu ziren guztiak, eta "maila oneko markak" egin, Borja Apeztegia prestatzailearen hitzetan. "Orain arte egindako lana barneratzea eta jorratutako bidea baloratzea ziren helburuak".

Igerilariak erakutsi dute astez aste hobetzen ari direla: 22 marka pertsonal hobetu dituzte bi aste tartean –Lasarte-Oria jokatu zuten Neguko Ligako aurreneko jardunaldia, urriaren 26an–. Egindako marka horiekin,

Gipuzkoako zein Euskal Herriko Txapelketetarako sailkapen berriak lortu zituzten igerilariak.

Izaro Audikana Neguko Euskal Herriko Txapelketara sailkatu da, 400 metro lau estiloak frogan. Distantzia horretan ere ederki aritu ziren Garazi Etxeberria, June Lopez eta Saioa Elola: Gipuzkoako udako zein neguko txapelketetarako txartelak lortu zituzten Ordizian. Nerea Irazu 100 m. librean egin zuen igeri, eta Gipuzkoako zein Euskal Herriko udako txapelketetan parte hartuko du.

Taldeko errekor batzuk ere hautsi dituzte igerilariak. Nahia Zudairek, esate baterako, 200 libreko marka ondu zuen: 02.35,15ean geratu zuen erlojua. Nathalia E. Torresek beste bi errekor berri ezarri zituen hamalau urtez azpiko kategorian, 50 librean eta 50 tximeletan.

ZORION AGURRAK



Alaia
Zure lagunena eta familiaren partetik, zorionak Alaia!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu Txintxarriren bidez zoriontzeko:

Internet

Txintxarri.eus-en
txintxarri.eus/zorionagurra eta
Bidali zure zorion agurra
formularioa bete.
Urtebetetze egunean bertan
argitaratuko da webgunean eta
ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali
txintxarri@txintxarri.eus
helbidera, eta idatzi:
izen-abizenak, urtebetetze-
eguna eta nahi duzun testua. Ez
ahaztu irudia atxikitzeaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK

Roke Gainza Bueno. Azaroaren 9an.
Safiatou Diarra. Urriaren 30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 15 LASA

Larunbata, 16 GANDARIAS-URIBE

Igandea, 17 GANDARIAS-URIBE

Astelehena, 18 GIL

Asteartea, 19 ACHA-ORBEA

Asteazkena, 20 URBISTONDO

Osteguna, 21 GANDARIAS-URIBE

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52

ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49

DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51

LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74

GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29

URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67

GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu: Urbieta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia

eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.

Gehieneko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

OHARRAK

Elkartasun kutzak

Lasarte-Oriako Eliza ebanjelikoak nazioarteko proiektu batekin bat egin zuen duela hiru urte, *Operación niño de Navidad*. Ekimenaren helburua, inoiz oparirik jaso ez duten umeei alaitasun apur bat ematea da. Haurrek jostailu, eskola materiala edo higiene produktuak jasotzen dituzte kutxa batean. Kutxa hori pertsona batek egindako dohaintza bat da.

Kanpaina hori dela eta, Lasarte-Oriako Eliza ebanjelikoak herritarrek gonbidatzen ditu kutxa prestatzera. Izan ere, elkartasun keinu txiki honekin, irribarre handi bat marrazten baita haur horien aurpegieta.

Kutzak 18 x 30 zm izan behar ditu eta 11 zmtako sakonera. Bertan jostailu, eskola materiala edo higiene produktuak sartu behar dira.

Dohaintzak bere egoitzan jasoko dira, ostegunetan, goiz eta arratsaldeetan. Azken eguna azaroaren 24a, igandea da.

Eslogan lehiaketa

Ttakun Kultur Elkarteak eslogan bila dabil eta lehiaketa antolatu du bazkide eta herritarren artean. Esloganak euskara, kultura eta Lasarte-Oria izan beharko ditu ardatz. Saria abenduaren 21ean ospatuko den Santo Tomas feriarako 2 bono izango dira. Bono bakoitzean bi talo, gaztainak eta sagardoa daude barne. Gainera, irabazleak ez du egun horretako ilara itxaron beharrik.

Proposamenak harpidetza@ttakun.eus helbidean, 646 824 466 whatsapp zenbakian edo Ttakuneko bulegoan, Geltoki kalea 4, jasoko dira.

Esloganarekin batera, egilearen izena, helbide elektronikoa eta telefonoa eman beharko dira. Lanak aurkezteko azken eguna abenduaren 1a da. 16 urtetik gorako guztiek har dezakete parte.

Irabazlea Abenduaren 4an emango da jakitera. Ttakun Kultur Ekarteko zuzendaritza eta langileen artean osatuko epaimahaiak erabakiko du garailea, eta apelaezina izango da.

Ttakun Kultur Elkartearen jabetzan geratuko dira esloganak. Horrenbestez, elkarteak eskubidea izango du erabilera komertziala egiteko eta bere eslogan moduan erabiltzeko, argitaratzeko eta/edo erreproduzitzeko.

SUDOKUA

8			7		1			9
		1			4		7	
	2	3		5				8
					6	8	3	
4			9	2				1
1	3				5	9		
3			1		8		9	
			5	4		3		7
	6	5	3					8

Lodosara bidaia

Biyak Bat erretiratuen elkarteak Lodosara irteera antolatu du. Txangoa azaroaren 21ean, osteguna, izango da. Goizeko 8:30ean aterako da autobusa egoitza aurreko geltokitik eta 19:00etan bueltako dira.

Artesano piper kontserba-fabrika eta Mendabiako Mainegra cava upategia bisitatuko dituzte. Herria ezagutzeko tartea ere izango dute. Azagrako Hostel Venecian bazkalduko dute. Ostean, dantzaldiaz eta bingoaz gozatuko dute.

Bazkideek 35 euro ordaindu behar dituzte; bazkide ez direnek, ordea, 45 euro. Izena ematea egoitzeko bulegoan egin behar da 10:30etik 12:30era.

Afari solidarioa

Lasarte-Oriako misio taldeak Adsis komunitateak Togoko Lome hiriburuan duen harrera etxearen aldeko afari solidarioa egingo du azaroaren 16an, larunbata 20:30etik aurrera. Harrera etxean, iparraldetik unibertsitatera doazen gazteak hartzen dituzte eta haien ikasketak egiteko baliabideak eskaintzen dizkiete. Helburua, haien herrialdea garatzen lagun dezaten da. Afariaren gozatzeko 10 euro ordaindu behar da.

Kinto afaria 1963

1963ko kintoen afarirako deialdia. Afaria azaroaren 23an izango da, larunbata. Izena emateko azken eguna, berriz, azaroaren 17a, igandea. Afariak 40 euro balio ditu. Kutzako zenbakia: ES83 2095 5096 9091 1930 9352.

Kinto afaria 1969


1969ko kintoen afaria antolatu nahian ari dira, eta urte horretan jaiotakoei deia luzatu nahi diete animatu eta antolakuntzan laguntzera. Harremanetarako telefono zenbakia: 695 707 499 (Marijo).

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 15




Larunbata, 16



Igandea, 17




Astelehena, 18




Asteartea, 19



Asteazkena, 20



Osteguna, 21



ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48

AZOKA TXIKIA

LANA

ESKAINITZA
Pertsona bat behar da bi lagunentzat janaria prestatu eta garbiketa egiteko. Asteleheneretik ostiralera, 06:00etatik 09:00etara. Harremanetarako zenbakia, 943 373 706.

ESKARIA

Pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago. Interna edo orduka. Harremanetarako zenbakia, 648 243 984.

SALEROSKETA

SALDU
HYMER Exsis SG autokarabana txikia saltzen dut. Lau plaza bidaiatzeko eta lo egiteko. Zerbitzu guztiekin hornitua. 656 760 109.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


TAMAINA BERRIA

Modulo txikia.
12 €
(BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta Maitane
Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo
eta Aizpea Amas.

Banatzaileak
Ioar Gainza, Egoitz Epelde, Erlantz
Ezeiza, Iñigo Garcia eta
Jose Lanchas.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 15

LASARTE-ORIA Bakarrizketa
Ion Martinez 'Txiki' aktorearen 40 urte eta aldapan bera niek! bakarrizketa umoretsuaz gozatu ahalko da.
Jalgi Kafe Antzokia, 23:00etan.

LASARTE-ORIA Erakusketa
Zurmailu elkarteko kideek urtean zehar egindako lanak erakutsiko dituzte. Igandera arte ikusgai izango da.
Antonio Mercero gunea, gaur, ostirala, 18:00etatik 20:00etara; larunbata eta igandea, 12:00etatik 14:00etara.

URNIETA Antzerkia
Ados teatro taldeak berea azken lana aurkeztuko du, *Lloviendo ranas*. Doakoa da, baina sarrera behar da. Sarobe Arte eszeniko gunearen 25. urteurrenako ekimena.
Sarobe gunea, 19:00etan.

ANDOAIN Antzerkia
Espacio disponible antzerkiaren gozatu ahalko da, Perigallo teatro taldearen eskutik. Sarrera, 12 euro.
Bastero kulturgunea, 21:30etan.

LARUNBATA 16

LASARTE-ORIA Baserriko produktuen azoka
Udazkeneko barazki, fruitu eta hainbat jaki izango dira salgai 7. baserriko produktuen azokan. Haurrentzako egurrezko jokoak izango dira.
Okendo plaza, 10:00etatik 14:00etara.

LASARTE-ORIA Akordeoi Jaialdia
Duo Habanera bikotea eta Iberotango laukotea izango dira aurten XVI. Akordeoi jaialdian. Sarrera, 5,50 euro. Zero Sette akordeoi orkestrak antolatutako ekitaldia.
Manuel Lekuona kultur etxea, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Erakusketa
Jose Luis Elexpe 'Palex'-en *Ideiak iztartzan* erakusketaren aurkezpena egingo da. Erakusketa azaroaren 16tik abenduaren 16ra egongo da ikusgai.
Siglo 20, 20:00etan.



LASARTE-ORIA Kalejira Musikala. Azaroaren 22an, Santa Zezilia musikariaren zaindariaren eguna da. Hori dela eta Udal Musika Eskolako ikasle eta irakasleek instrumentuak kalera atera eta kalejira musikala egingo dute asteartean. Manuel Lekuona kultur etxetik atera eta Okendo plazan egingo dute geldialdia. Kale Nagusitik Tajamarrera eta berriro ere Manuel Lekuonara egingo dute. Senideek prestatu dituzten doinu eta dantzak ikusi ahalko dituzte geldialdietan. Eguraldi txarra eginez gero, Manuel Lekuonako sarreran egingo dute emanaldia.
Erdialdeko kaleak, asteartea, 18:30etan.

DONOSTIA Manifestazioa
Gipuzkoako Adinekoen eta pentsiodunen elkarten plataformak *KPIAren balioa handitzea*. *Gutxieneko pentsio 1.080 euro* lelopean manifestazioa egingo du. Alderdi Eder, 17:00etan.

ANDOAIN Antzerkia
Goraka antzerki taldearen *Ulisesen bidaia* antzerkia ikusi ahalko dute familiek. Zazpi urte baino gehiagoko haurrei zuzendutako lana da. Sarrera, 4 euro.
Bastero kulturgunea, 17:00etan.

IGANDEA 17

URNIETA Antzerkia
Teatro Paraiso taldearen *Xokolat* antzerkiaren gozatu ahalko da. Sarrera, 3,30 euro.
Sarobe gunea, 19:00etan.

ASTEARTEA 19

LASARTE-ORIA Ipuin kontaketa
Amarau Klubeko HH3 eta HH4 mailako haurrek ipuin kontaketa saio berezia gozatuko dute. Abestiak, eskulanak... landuko dira haurrek ipuineko gaia bereganatzeko. Izen ematea Ttakun Kultur Elkartearen, *aisia@ttakun.eus* helbidean edo 695 785 392 whatsapp zenbakian.
Mirentxu, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Ipuin kontaketa
6 eta 8 urte arteko gaztetxoek Kontukantoiko kideen istorio eta marrazkiekin gozatuko dute.
Manuel Lekuona kultur etxea, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Hitzaldia
Sareko bozeramaile Joseba Azkagarragak eta Jose Ramon Lopez de Abetxuko preso ohiak *De donde venimos, zein bide dugu aurretik* hitzaldia eskainiko dute. Sarek Orain presoak ekimenaren barruan antolatutako hitzaldia.
Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etan.

ASTEAZKENA 20

ANDOAIN Musika
Arkaitz Mendozak zuzenduta, Kamerata Euskdivarius orkestrak eta abesbatzak Karl Jenkinsen *The Armed Man: A Mass For Peace* obra eskainiko du. Doako emanaldia da.
San Martin eliza, 19:30etan.

OSTEGUNA 21

LASARTE-ORIA Sari banaketa
Lasarte-Oriako Beldur barik lehiaketako sari banaketa egingo da.
Manuel Lekuona kultur etxea, 18:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Los hermanos Sisters (JBGA)
Ostirala: 16:00, 18:15, 19:45, 20:30, 22:45, 01:00.
Larunbata: 16:00, 18:15, 19:45, 20:30, 22:45, 01:00.
Igandea: 16:00, 18:15, 19:45, 20:30, 22:45.

Tabaluga y la princesa de hielo
Igandea: 17:00.

La directora de orquesta
Igandea: 19:30.

ANDOAIN

BASTERO

Mientras dure la guerra
Larunbata: 19:30, 22:00.
Igandea: 19:30.
Astelehena: 19:30, 22:00.

Margolaria
Asteartea: 19:00.

USURBIL

URBIL

Si yo fuera rico
Ostirala: 16:00, 18:15, 19:45, 20:30, 22:45, 01:00.
Larunbata: 16:00, 18:15, 19:45, 20:30, 22:45, 01:00.
Igandea: 16:00, 18:15, 19:45, 20:30, 22:45.

Le Mans '66
Ostirala: 15:45, 18:50, 22:00, 23:45.
Larunbata: 15:45, 18:50, 22:00, 23:45.
Igandea: 15:45, 18:50, 22:00.

La casa del terror
Ostirala: 18:15, 22:35, 00:45.
Larunbata: 18:15, 22:35, 00:45.
Igandea: 18:15, 22:35.

Estafadoras De Wall Street

Ostirala: 15:45, 20:20, 22:40, 01:00.
Larunbata: 15:45, 20:20, 22:40, 01:00.
Igandea: 15:45, 20:20, 22:40.

Joker
Ostirala: 16:15, 18:45, 20:00, 21:30, 00:15.
Larunbata: 16:15, 18:45, 20:00, 21:30.
Igandea: 16:15, 18:45, 20:00, 21:30.

Maléfica: Maestra del mal
Ostirala: 16:00, 18:30, 21:00.
Larunbata: 16:00, 18:30, 21:00.
Igandea: 16:00, 18:30, 21:00.

La familia Addams
Ostirala: 15:45, 17:00,

17:55, 19:00.
Larunbata: 15:45, 17:00, 17:55, 19:00.
Igandea: 15:45, 17:00, 17:55, 19:00.

Terminator: Destino oscuro
Ostirala: 16:45, 22:00, 00:40.
Larunbata: 16:45, 22:00, 00:40.
Igandea: 16:45, 22:00.

Ventajas de viajar en tren
Ostirala: 01:00.
Larunbata: 01:00.

Doctor Sueño
Ostirala: 21:00, 00:05.
Larunbata: 21:00, 00:05.
Igandea: 21:00.

Depeche Mode. Spirits in the forest
Osteguna: 20:00.



LABURPENA

Los hermanos Sisters (JBGA)
Zuzendaria: Jacques Audiard. **Gidoilaria:** Jacques Audiard eta Thomas Bidegain. **Argazkia:** Benoît Debie. **Herr:** Frantzia (2018). **Antzezleak:** Joaquin Phoenix, John C. Reilly, Jake Gyllenhaal, Riz Ahmed, Allison Tolman, Rebecca Root, Jóhannes Haukur Jóhannesson, Ian Reddington, Philip Rosch, Rutger Hauer, Carol Kane. **Iraupena:** 121 minutu.

Anaiarteko harremana jokoan

Patrick deWitten izen bereko eleberrian oinarritutako *Los hermanos Sisters* filma eskainiko dute Okendo Zinema taldearen zine forum atalean.

2018 urtean nazioarteko zinema jaialdietan ikusi ahal izan zen lana, 66. Donostiako Zinemaldian *Perlas* atalean eskaini zuten, esate baterako. Hainbat sari ere jaso ditu lanak eta bere zuzendariak. Aipagarriena 2018ko Veneziako zinema jaialdiko zuzendari onenaren saria.

Western honetako protagonistak *Sisters* anaiak dira, Charlie (Joaquin Phoenix) eta Elik (Jonh C. Reilly).

Charlie, anaia gaztea, hiltzeko jaio zen. Elik, ordea, bizitza normala eramatearekin egiten du amets.

Mundu basati batean bizi dira, urrearen sukarraren garaian, 1850ean. Haien lana jendea hiltzea da, berdin dio gaizkile izan edo ez. Komodoroak Hermann Kermit Warm urre bilatzailea aurkitu eta hiltzeko kontratatuko ditu. Oregondik Kaliforniara joango dira haren arteko harremana kolokan jarriko du.

Filma ikustera doazen herritarrek jatorrizko hizkuntzan ikusiko dute. Gaztelaniazko azpidatziak izango ditu.

ALBISTEA

Euskal dantzak oinarri dituen disko-liburua

'Bizi dantza' izeneko disko-liburua da Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren azken lana. Jalgi Kafe Antzokian aurkeztu dute. Euskal dantzen tradizioari begiratu diote oraingoan, dantzak euskal kulturaren eta norbanakoengan duen eraginari erreparatuta

Maitane Aldanondo

Joan den asteko ostiral arratsaldearen hotza atzean utzita, harrera bero eta goxoa egin zieten herriko hurrek Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoei. Hirukoak *Bizi dantza* azken lana aurkeztu du lepo zegoen Jalgi Kafe Antzokian. 17:00etan zuten hitzordua. Geltoki kaleko sarrera igarota aurrera egitea ezinezkoa zen, ordua baino lehen hurrek eta gurasoek txoko guztiak hartuta zituzten. Aulkietan, besoetan edo sorbalda gainean oholtzara begira zeuden txikiak.

Hasi aurretik, talde argazkia egin zuten oholtzatik. Jarraian,



'Bizi dantza' disko-liburua da Pirritx, Porrotx eta Marimototsen azken lana. TXINTXARRI

azalpenen unea heldu zen. Oholtza gainean ere ez ziren bakarrik egon pailazoak, diskoan lan egin duten kideak izan zituzten alboan: hitzak sortu dituen Leire Bilbao idazle bizkaitarra, doinuak konposatu dituen Xabier Zabala, eta pailazo bihurriak marrazki bilakatu dituen Maite Mutuberria ilustratzailea. Abestietan, gainera, Idiazabalgo eta Ordiziako hurrek beraien ahotsa jarri dute.

Askari berezia izan zen haurrentzat eta kosta egin zitzairen isilik egotea. *Katu bi* eta *Marmoka dantza* bideoklipak ikusteko aukera izan zuten bertaratutakoek. Haurretako batzuek azkenari jaramon gutxi egin zioten, aulki artetik eta azpitik pasata, agertokira bidea hasiz. Txikiak ez zuten pailazoei argazkia egiteko aukera galdu nahi izan eta pailazoei ez zuten inor atsekabetu, denei tartea eginda.

Dantza, ardatz

Euskal dantzen tradizioari begiratu diote oraingoan, dantzak euskal kulturaren eta norbanakoengan duen eraginari erreparatuta, Vanesa Castaño

eta Jon Maya dantzarien laguntzarekin. Gai ugari landu nahi izan dituzte: feminismoa, maitasun askea, hizkuntzak, ekologia... Fabula baliatu dute eta animalia bilakatu dira hiru pailazoak: Porrotx, oilarra; Pirritx, astoa, eta Marimotots katua.

Disko bikoitza da. *Bizi dantza* osatzen duten hamahiruna abesti eta kantukontuekin batera, *Irri dantza* diskoa doa opari, pailazoaren beste hainbeste kanta eta lagun esanguratsuekin grabatutako Irri Irratiko pasarteak biltzen dituena.





54€ urtean
EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

Elikatu hizkuntza eta kultura!



ABENDUAREN 31a baino lehen bazkide egiten bazara otar baten zozketan sartuko zara!

Izen-abizenak: _____

NAN: _____ **Jaiotze data:** _____

Helbidea: _____ **Herria:** _____

Telefonoak: _____

e-maila: _____

Kontu korrontea (IBAN): _____

Bidali postaz edo utzi bulegoan:
Geltoki kalea 4, beheka 20160 LASARTE-ORIA

On-line egiteko:
www.txintxarri.eus/bazkidetu



Data eta Sinadura



Ttakun Kultur Elkartean urtean zehar antolatzen dituen ekitaldien eta zozketen berri jaso nahi dut emailaz

Ttakun kultur elkartearen izenean emandako datuak bazkideen kudeaketarako erabiliko direla adierazten dizugu; kudeaketa administratiboa, bazkideen onuren aplikazioa, zozketen partehartzea eta harremanetarako informazioa. Emandako datuak bazkideentzat irauten duen bitartean edota betebeharrak irauten duen bitartean gordeko dira. Datu hauek ez dira hirugarren pertsonen eskainiko betebeharrak dagoen kasuetan eziz. Honetaz gain, edozein momentutan egikaritu daiteke sarbide, zuzenketa, ezeztatze, oposizio, mugatze eta eramangarritasun eskubidea. TTAKUN KULTUR ELKARTERA idatzi bat zuzenduz NAN agiria aurkeztuz, edo posta elektronikoki bat bidaliz datubesa@ttakun.eus helbidera.

Informazioa eta bazkideak: ttakun@ttakun.eus • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943 37 14 48